

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Azaroak 23, 85. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



A zer gola!!

R

RICOH

TELEFAX-KOPIAGAILUAK

Avenida 52 etxabehea, Tfnoa: 945 - 24 22 04. Fax: 24 64 97, 01008 GASTEIZ

Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Brikoa

Udazkena sasoirik egokienetakoa omen da gure etxeetan konponketa eta hobekuntzak egiteko. Hori diote, behintzat, "brico" munduko adituek. Dirudienez, irabazpide horrek oraingo hiletan lortzen du urteko salmenten punturik gorena. Batez ere, euren eskuekin abil sentitzen direnek ongi gertatzen dute ekipoa, neguari begira, aisitartean zaletasunez beharturiko lanari ekiteko.

Inoiz ez naiz eskulanetan nabarmentzen diren horietakoa izan. Areago, agian alderantzizko arrazoiengatik lor nezake kalifikapen ona, izan ere eztrebe xamartzat bait naukate nire lagunek. Ez nintzen teknkarako jaiola izan, dudarik gabe. Hala ere, gustora egoten naiz etxeko esku-lanetarako denetariko erreminta eta osagai saltzen dituzten leku horietan. Arlo hori ez dudala inoiz menperatuko ongi dakidan arren.

Etxea eta giza gorputza antzera eginda daudela predikatzen dute brikozaleek. Biek, egunero, kanperaso bortitzak jasan behar dituzte: hezetasuna, hotza, haizea, eguzkia... Elementu horien eragin txarra arintzeko konponbide egokiak prestatu behar dira, gutxien espeño denean hondamendia gerta ez dadin. Bi

kasuetan espezializatuen eritzia ezinbestekoa da eta, gorputzari dagokionez, mediku eta osasun aholkulariak ditugun bitartean, etxeen sailean berezilari multzo handi bat aurkitzen dugu, nork bere kontseiluak entzun nahi dizkionari azaldu asmoz.

Denda espazializatu horietako batera sartu eta berehala harrapatzen nau galdera inozoak: «eta horrek zertarako balio du?». Apaletan ikus ditzakedan lanabes, aparailu eta modu eta marka guztietako lagungarri haien erdian galduta bezain ernarazita, etxea goitik behera alda nezakeela pentsatzen dut, unetxo batez. Itsasnesken oiha bezala, «zatoz, eraman nazazu zurekin» diotela iruditzen zait. Zorionez, gehienetan, entzungorrena egiten du nire buruak.

Baina hasieran nioen bezala, «etxeko mantenatzaile huskabe»en kopurua garaia ei da eta handituz doa. Sukaldeko aulki apal bat konpontzetik lorategian hamabost metro luzerako itsasuntzi osoa eraikitzeraino, bada espektru zabala, brikozaleek eurenak egiten goza dezaten. Neri, ordea, ezina zait.

Jose Mari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

**inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atekak

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

**ASA Taldea eta Taileginen
Elkartek Delección de
Hacienda**

Gauza kurioso baten berri eman nahi dizuegu. Identifikazioa Fiskaleko kodea -erdarazko CIFA- lortu nahian gabiltzan Arrasateko ASA eta Tailaginen elkarte-kook, asko ez dela Donostian dagoen *Delección de Hacienda* ja genuen. Han, IFK/CIF lortzeko inprimakin batzuk bete beharra genuen eta gure estatutuen kopia bat.

Denak samurra zirudien, baina hara non Donostiatik bueltan bidaltzen dizkiguten gure paper eta estatutuok. Puntuko, harremanetan jarri ginen telefonoz bueltatze horren arrazoia jakin guran. Je! Estatutuak euskaraz bidali genizkiela eta bidaltzeko erdarazko kopia bat

-Je! Ba... aizu! Ez daukagu erdarazkorik!

-Nola? Euskaraz egin zenituzten ala?

-Bai! Zer uste zenuen, erdaraz sortu eta gero euskaratu egin genituela ala? Euskaraz sortu eta hala ditugu eta izango ere.

-Ah! Orduan nik Gobernu Zibilera bidalido ditut eta euskaratuta gero tramitatuko dizuet dena. Baina egun batetik bestera lortu beharrean FIK-CIFA itzulpenak tardatzen duena itxaron beharko duzue. Gutxienez hilabete bat.

Guzti honetaz erderaz egin behar izan genion eta oraindik ere, emakume hura bere buruari galdetzen arituko zaio ea zer errentagarritasun duen estatutuak euskaraz egiteak, arazorik baino ez dugu izango eta, nonahi. Baina guk geure buruari galdetzen jarraitzen diogu ea zer errentagarritasun duen hain garestia den administrazioak, euskarazko estatutu batzuen aurrean hain nabaria den inoperabilitatea erakusten digunean.

Eta hori bakarrik ez, gure estatutuak euskaraz hutez daudelako itzuli egin behar badizkigute erderara, erdera hutez dituzten entitateei beraien estatutuak bidaltzera animatzen ditugu. Agian beraiei ere euskaratuko dizkie eta. Horra non itzulpen zerbitzu bat, "denon neurritza".

Eh! Ea enteratzen zareten euskaraz bizi nahi dugula eta estatutuak euskaraz izanagatik ez garela bitxo arraruak.

ASA Taldea eta Talaginen Elkartea

Irakurle maitea:

Gure ordenadoreetan hainbat aldaketa egin behar dugula eta, datorren astean ez da Arrasate Press aterako. Abenduaren 7an izango gara berriro zuekin. Ondo izan.

Txiki-Txoko


Konturatuko zineten honez gero aldaketa txikia - baina guretzat inportantea - sortu dugula Arrasate Pressen 38. orrialdean. Orain bi astebete Txiki-txoko ireki genien Mondragoeko ume guztiei.

Aurrerantzean, Arrasateko eskola guztiek hartuko dute parte astero-astero, txikientzako txoko eder honen egitean. S. Andres eta

Musakolako eskolak agertu dira. Aste honetan Erguingo umeen lanak izango dituzue bertan eta datorrenetan, Merced, S. Frantzisko Xabier, S. Viator, Asuncion, Ferixalekua, Umezaintza, eta Almengoanak.

Artista asko dago gure gaztetxoan artean eta Txiki-txoko haien agertoki bihurtuko da. Gustatuko zaizue-lakoan, segi ondo.

Zer iruditzen zaizu soldadutza 9 hilabetera laburtzea?



Rafael Amozarrain
(jubilatua)

Laburtu? Hori kendu egin behar da, gazteek denbora galtzeko baino ez da eta. Han ez dute ezer egiten, gauza txarrak ikasi besterik ez.



Antonia Uribarren
(etxeakoandrea)

Ondo. Gazteentzat oso kaltegarria da soldadutzara joatea, lanarengatik eta ikasketengatik. Laburtuta hobe.



Goizane Jausoro
(ikaslea)

Ez da soldadutzarik behar. Egin behar bada, hobe laburrago egitea.




Jose Rivas
(representantea)

Printzipioz ondo, baina bestalde, interesgarriago behar luke izan eta hiru hilabetera laburtu. Inoiz ez naiz derrigorrezko soldadutzaren aldekoa izan. Armadak profesionala behar luke izan, eta joateko interesa duena joan dadila, eta kitto.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreprodukzioak

Enkuadernazioak


Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

Memesa

79 42 22

NAROKI

901 MAILAKO
BITXITEGIA



ERLOJUTEGIA

Erdiko Kale, 23. Tel.- 792047 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	79 97 22
	79 97 33
	79 97 44
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



23

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Disparate nacional", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "48 horas más", 10.30etan.
- Gaueko 10.30etan "Calido color de otoño" kontzertua Juan Carlos Irizarrekin, Amaia antzokian.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

24

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Uno de los nuestros", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Shirley y Valentine", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Arratsaldeko 4.30etan "Jeremiah Johnson" bideo emanaldia Monterronen.
- Aretxabaletan, atzeratuena aldeko jaialdia Zeraia zine-man, gaueko 10etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

25

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Uno de los nuestros", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "48 horas más", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Argia eguna.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

26

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Uno de los nuestros", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "48 horas más", 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

27

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Uno de los nuestros", 7 eta 9.30etan.
- Arratsaldeko 7etan Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatutako enkartelamendua, Portaloian.

- Arratsaldeko 7.30etan hitzaldia, "Trikitixa lehen eta gaur" Monterronen.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

28

ASTEAZKENA

• • •

- Hitzaldia Almenen: Pablo Zapatak Zer egin zure umea irakurle ona izan dadin. Eskola porrotarentzat erremediorik onena. Almeneko aretoan 7etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

29

OSTEGUNA

• • •

- Zine-Kluba, "La boca del lobo", Amaian, arratsaldeko 8.30etan.
- Arratsaldeko 3etan hitzaldia, "Droga prebentzioa", AEDn.
- Koldo Ametzoyren ipuin kontaketa Almeneko aretoan arratsaldeko 7etan
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

Kirol Agenda

FUTBOLA

• • •

- Igandean arratsaldeko 3.30etatik aurrera, Atxabalpeko futbol zelaian, hirugarren mailari dagokion partidua: Mondragon-Getxo.

FUTBITOA

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne, 30 partidu ostiraletik igandera bitartean, Zaldibarko frontoian, Santa Teresa Ikastetxean, eta Musakolako kiroldegian.

MENDI IRTEERA

• • •

- Besaide Mendizale Elkarteak antolatutako, egun guztirako mendi irteera, Apellaniz-Kapildui-Markinez. Irteera goizeko 8etan, Garibai geltokitik.

Erakusketak

• Monterron jauregian, Arantxa Juaristi margolari arrasatearraren obren erakusketa dago ikusgai, hilaren 30era bitartean. Edorta Uriak aurkezpeneko sarreratxoan idatzi zue-
nez, Arantxaren lanak "pertzepzio desberdinak ditu gaiari zein formari dagokionean". "Lagunen erretratoak, koloreanitzeko lorontziak, bodegoi argiak, inpresionismoz kutsaturiko paisaiak" ikusi ahal izango ditugu.

Bizikleta

• Mendiko Bizikleta irteera

Eskoriatzako zikloturista taldeak ibilaldia antolatu du datorren igandea, hilak 25, goizeko 9etarako. Irteera eta helmuga Eskoriatzako plazan izango dira eta hamarretakoa, berriz, Benta Frian. Ibilaldia, Apotzaga, San Adrian, Jarindo, Aitzorroitzeko bidegurutzea eta Erañan zehar izango da, besteak beste, eta lehiaketa ez, baina ibilaldia denez, bizikleta zale guztiak daude gonbidatuta. Kaskoa eramatea gomendatzen da.



Kontzertua

Juan Carlos Irizar eta Soraia Agirregoikoa

Juan Carlos Irizarrek kaleratu berria du bere seigarren diska, *Cálido color de Otoño* izenekoa. Musika konposatzaile eta pianojole onatiarrak, ordea, aproba berria egin du oraingoan. Bakarreko lanetik eta umeen koruekin aurrez grabatutako disketatik alde egin du. Soinua eta soinu-jolea hartu ditu lagun Juan Carlosek, udazkeneko aire horiek konposatu eta jotzeko orduan. Soraia Agirregoikoa izango du lagun Arrasateko aurkezpenean ere. Izan ere, Arrasate aukeratu du bikote honek euren diska kaleratu berria aurkezteko, eta ostiralean gaueko 10.30etan izango dira, Amaia antzokian, azken abestiok eta Juan Carlosen lehengo batzuk interpretatuaz.

Diska berria musika melodiko eta nostalgikoduna da egileen esanetan. Guri ere, entzuterreza eta lasaia iruditu zaigu.

10etan, atzeratuaren aldeko urteroko jaialdia izango da Aretxabaletako Zeraia zineman. *Musika eta umorea* izenez presatatu den jaialdi horretan, herriko soinu-jole gazte, txistulariak, herriko bertsolariak eta Lazkao Txiki, *Txintxari* musika taldea, abesbatza, Alberto Gonzalez magoa, *Kokomordokoa*, eta Gillermo Akotegiren txistek izango dira.

Ekologia

Arrasateko EKIk erreken kutsaduraren aurkako ekin-tza burutu zuen asteazkenez Arrasateko sarreran. Aramaio errekek, Debak bezala azkenaldian jasaten duen kutsadura, Garagartzatik behera dauden lantegien isurketen ondorioz sortzen dela salatzen dute ekologistek. Instituzioetatik berehalako neurriak exijitzen dituztela aldarrikatu zuten, eta aurrerantzean burutu asmo dituzten ekintzetara gonbidatu arrasatearrak.



Argia eguna

• Argiak, urtero bezala, *Argia eguna* antolatu du Euskal Herri guztirako. Arrasateko mahaia Portaloi inguruan jarriko da, eguerdi eta arratsalde; bertan Urtekaria 90 erosi, harpidedun egin edo Argiaren aldeko dirulaguntza emateko aukera izango du hurbiltzen denak. Argiak zure laguntza ere behar du!

Jaialdiak

• Aretxabaletan, atzeratuaren aldeko jaialdia
Larunbatean, gaueko


tzat ere: azaroaren 28an, asteazkenez, "Andu Lertxundiri omenaldia" eskainiko diote, eta horretarako egun guztia pasatuko du Anduk ikastetxean. Egundorretan bertan, hitzaldia eskainiko du Pablo Zapatak, "Zeregin zure umea irakurle ona izan dadin. Eskola porrotarentzat erremediorik onena" gaiari buruz, arratsaldeko 7etan.

• 29an, Koldo Ametztoy ipuin kontalaria.

• 30ean, ostiralez, *Kukubiltxo* antzerki taldeak *Orreaga* lana antzetzuko du Amaian, gaueko 10etan, ikasleentzat doan eta helduentzat 500 ptaren truke.

Ospakizunak

• Almen 25. urteurrena
Almeneko 25. urteurrenaren inguruan antolaturiko ekintzek aurrera darraite, eta datorren asterako honakook antolatu dira, ikasle zein kanpoko jendearen-




Balanzategiren ustez ez da erraza kooperatibetan lan sindikala egitea, 'ez bait dago hauteskunderik (Kontseilu Sozialerako barne hauteskundeak egiten dituzte), eta ez dago sindikalismorik ere. Inguru kooperatibista batzuetan oso zabaldurik dago sindikatuak arrotz, 'kanpoko' direla esatea. (...) Kontseilurako hauteskundeak sekzioka egiten dira, eta sasoi bateko sindikatu bertikalekoaren antzeko sistema erabiltzen dute.

(...) Esan daiteke kooperatibetan ere badagoela patronala, zuzendaritza hain zuzen ere. Sindikatuaren egitekoa kontrapisua egitea litzateke eta langileen interesen defentsan buru izatea. Kontuan eduki behar da elkarte anonimoekiko kompetentzian, enpresa normalean langileok eta sindikatuok kontrapartida eta negoziazorik gabe onartzen ez ditugun bitartekak erabiltzen dituztela kooperatibek.

(...) Nire ustez, kooperatibak galdu egin du langilea duintzeko izan zuen helburu soziala”.

(Julian Balanzategi sindikalistak Deia egunkarian)



Denboraren tratamenduari dagokionean behintzat, gizon modernoa dugu Iñaki Mendiguren, Eskoriatzako irakasle eskolan 10 urtez aritu eta gero, zeharo ordenadoreen munduan harrapatuta dagoena: aipatu lanaz gain, Elkar argitaletxearentzat eta Arrasate inguruko Ikerlan eta Hezibide Elkarte bezalako zenbait enpresarentzat ere iharduten bait du. 'Enpresa itzulpen lan hori egingo banu soilik, aspergarri litzateke baina, praktikan bestearen osagarri gertatzen zaidak”.

(Iñaki Mendigurenek Argia aldizkarian)

Zer ondorio atera dituzu Loiolan egindako kultur animatzaileen mintegitik?



Kultur Bideetan erakundeak (Eusko Jaurlaritza eta Lan Kide Aurrezkiak babestua) antolatutako mintegi honek, batetik, Euskal Herri osoko kultur langileak biltzeko aukera eskaini du, modu honetan herrialde guztietan esperientziak eta kultur errealitatea eta egoerak ezagutzeko ere bai. Egia esan, hamar urteko bizitza du Euskadiko Kultur gestioak. Esperientzia laburra izanik, asko ikasi beharra daukagula esan behar da.

Bilera hauek kultur langileen arteko harremanak finkatu, sendotu eta guztion arteko elkarlana sustatzeko izan ohi dira interesgarriak. Ildo honetatik mintegiak eman duen lorpenik garrantzitsuenetariko bat aitatu gura nuke: Komunitate Autonomoko, hiru probintzietako, kultur langileak, egoerak guztiz heterogeneoak izanda, batuko dituen elkarte profesionala sortzeko lehen pausak eman direla, alegia.

Etorkizunari begira, kulturgintzan eta kultur gestioan dihardugunok, ohizko eragileez gain (Administrazioa, sortzaileak, hiritarrak eta elkarteak), beste bi eragile "berri" rekin ari behar izango gara, kultur zerbitzuen enpresak eta esponsorizatzeko borondatea erakutsiko duten enpresekin, hain zuzen ere, guztion artean herriko kultura indar dezagun.

Jon Garai,
Udaleko Kultur dinamizatzailea


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOBBA
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

ORTZI
erretegia

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68 BERGARA

Bergara

Bergarako Udalak, datozen gabon jaietarako herria argiz apaintzeko erabakia hartu du, eta gabonetako irudi argitsuokin kaleak apaindu ahal izateko, herriko dendarien laguntza eskatu zuen. Harrera onegirik izan ez zuenez, frontoia eta San Martin enparantza bakarrik apaintzea erabaki zen.

Argiak jartzea, zuhaitzak ordezkatzeko baldintzaz izan da batez ere onartua udal txean, eta arrazoi ekologikoengatik ez da Bergarako kaleetan zuhaitzik jarriko. Argiak, berriz, alokatu egingo dira erosi beharrean, urtetik urtera irudiak aldatzeko aukera eskaintzen duelako modu horrek.

Azterketa batzuk egin ondoren, ingurune horretako 216 dendariei egindako proposamenean, bakoitzak 15.000 pta. ordaintzeko eskaera egin zaie, eta udalak bere gain hartzen ditu ezartzeko lanen eta argi indarraren gastua.

Gabonetarako, beraz, 700 bonbilaz osatutako 37 arku ikusiko dira kaletan.



Aretxabaleta

Lan Kide Aurrezkiak Ojala jauregian duen Ikasbide etxea albiste da Aretxabaletan aspaldian. Joan den martxoan alboan beste eraikin bat egiteko baimena eskatu zuen Lan Kide Aurrezkiak, orain arte erabiltzen zuena bere beharretarako txiki geratua dela eta. Udalaren aldetik ezetza jaso zuen eskakizunak, Arau Ordezkatzaileetan lur hori nekazaritzako bezala sailkatuta dagoelako eta nekazaritzakoa ez den erabiltzenen bat eman behar zaionerako bi baldintza berezi bete behar direla eta: gizartearentzako interesa izatea eta lur horietan egin beharra premiak justifikaturik egotea.

Ikasbideren erantzun baten ondoren, HBk bere eritzia plazaratu zuen, baserriarrei baimenik ematen ez zaienean horrelako erakunde bati proposamena onartzeak precedentea ezar dezakeela esanez. Bestalde, Iruikoa baserria ere Lan Kide Aurrezkiarena dela eta Olatatik 300 metrotara dagoenez, bera egokitzea porposatzen zaie.

Azken plenuan, onartu egin zen proiektua, HBko zinegotzien eta Eako baten aurkako botuarekin. Hala ere, eraikitzen hasteko baimenik ez zaie eman oraindik, eta alegazio epea isten denean, Diputazioaren oneritziarekin berriz ere plenuan eztabaidatuko da.



Antzuola

Antzuolako Udalak, herriko kultur taldeen artean milioi erdiko diru kopurua banatzeko erabakia hartu du. Guztien artean, laguntzarik handiena jasoko duena Kirol taldea izango da, 300.000 pta. jasoko bait ditu, eta hortik behera, Soinu eta Andero taldea, Arrola mendizale elkarte, Dantza taldea eta Musika Eskolari emango zaizkie kopuru txikiagoan.

Antzuolan, bestalde, eta plenua bertan erabaki zenez, Goiko kalean burutu beharreko lanen barruan, argi indarraren instalazioak lurpetik egiteko bi langile hartzea erabaki zen. Kontratua kale horretako lanak burutu arteko izango da.



SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 **GASTEIZ**

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
 - * Estimulazio goiztiarra
 - * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
 - * Logopedia
 - * Laguntza terapia
 - * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia
- (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

Langile Komisioak

Langile Komisioak Auzitegi Gorenaren aurrean ezarritako auzia sindikatuaren eskaeraren aldeko atera da, eta horrela, langabetuen subsidioaren barnean aparteko paga biak, orain arte jasotzen ez zituztenak, ere sartzeko erabakia hartu du. Horren ondorioz, azken bost urteetan lanik gabe egon diren ia lau milioi pertsoneri atzeratutako diruak ordaindu egingo zaizkie, langabezi laguntzarekin batera. Eskaria egin edo informazio gehiago nahi izanez gero, sindikatuaren egoitzara hurbildu.

Ur, zabor eta estolderia

Udalerrri honetako zergadun guztiei jakin erazten zaie 1990.eko 3. hiruhilabeteko Ur, zabor eta estolderi tasaren ordainagiriak azaroaren 21etik abenduaren 27ra, borondatezko epean ordain daitezkeela.

Epe hori pasa ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

Gazte zerbitzua

Gazteentzako informazio zentruen III. Ihardunaldietan Gazte Dinamizazioaileak parte hartu behar duela eta, datorren astean, hilaren 26tik 30era, gazteentzako Informazio Bulegoa itxita egongo da.

Dena den, bulego horretan kokaturik dagoen Kontzientzia Eragozpenari buruzko informazio zerbitzua eskaintzen jarraituko da, astero bezala, astelehena eta asteartean 5.30etatik 7etara.

Epaia

Rafa Etxabe preso arrasatearrari orain hiru aste egindako epaiketaren ondorengo epaia, joan den asteartean eman zuten jakitera. Bertan sei urteko gartela zigorra ezarri zitzaion arrasatearrari.

Txandaka

EKOLLOKIA KRIXTTAU ERLLIJIO BELLIA

Posmodernitateak ekarri digun ideologiarik parragarriena ekologia dela uste dut. Ekologiaren zentzuzko ideologia bakarra izadiarena bera da, eta izadiak ez du moralik ezagutzen. Beraz, ekologista izateko aurreneko kondizioa amorala izatea litzateke. Gaur egun, izadia moralizatzeari eta giza etikaren arabera arautzeari deitzen zaio ekologia. Beti badugu zerbait salbatzeko. Lehen *arima* genuen; gero *aberrria*, hurrena *gorputza*, eta orain berriz *izadi osoa*. Holako aurrerapenak ekarri ditu posmodernidade zentzugabeak. Izan ere, hain itsuan hankapetu ditugu *apaizak*, non presakakolaiko izan nahiak *jainko ergel* bihurtu gaituen. Jainko izan gabe, nola hasi bestela, gaur hasi garen bezala, izadi osoa salbatu nahian!

Natura da nere jainko bakarra, eta kasik egunero hor ibiliko nauzu zokoz zoko. Egia esanen badut, ordea, *ekollogista xuri horietakoren* batek ahoa zabaltzen didan bakoitzean parra egiteko gogoia ematen dit. Berehala ohartzen naiz ez dutela istinto naturalen zipitzik ere, ez dutela abere senik batere, ez diotela *krixtau xentxible xikiñaren printxipioa* besterik aplikatu nahi naturari... eta halare, berenak handiago, hor etorriko zaizkigu *apaix xalbatxaike errukitxu* antzera, galtzeko zorian den *hegazti* hau eta *landare* hura ez ukitzeko gero erreguka.

Orain, gautetik goizera, hegaziak, basapiztiak, landareak eta beste... mundu guzira renak omen dira; eta jakina, unibertsoa, neskatz edder liluragarri bihurtu da, gizonak begiratu bakar bakarrik egin beharko duena. Kuidau ordea, inork ukitu! bestela, neskatz edderrari zor zaion etikak eskatzen duen zigorra hor genuke abudo gaianean!

Izadiak, nik egunero ikusten dudanez, ez dio inolako inportatziarik ematen bere sa-beleko milaka izakiren etengabeko jaiotz-



Patziku Perurena (*)

heriotzari edota espezie ezberdinak sortze-galtzeari. Izadia, bere historia etenik gabean, hain zuzen ere, bi dado horiekin libertitu izandu baita: bizitz-heriotzarekin, espezie desberdinen sortze-galtzarekin, alegia. Beraz, Udalaizko azken zape-laitza, edo Urbasako azken otsoa edo Leizarango azken muxarra salbatu nahian dabilen *ekollogistak*, izadiaren betiko jolas zoragarria ukatu baizik ez du egin nahi. Ergel horiek ez

bide dute ohartu nahi izadiaren parragarri baizik ez direla. Hain zuzen ere, salbadore guzia baita parragarri izadiarentzako.

Izadiaren jabe direla uste duten *jainko ergel* berriak, ekologistak dira neretzako. Paradoja badirudi ere, ez baita inoiz ezagutu, gaurko ekologistena baino ideologia anti-ekologistagorik. Niri parra egiteko gogoia eman izandu dit beti, izadiaren lege ugari bezain zoragarriak *krixtautaxun mellenga txuariaren metro xikiñaz* neurtzeko joera duen ekologista *xentxible* guziak. Eta gaur, zoritxarrez, halakoak bakarrik ikusten ditut bazter guzietan. Benetazko ekologista izateko ordea, gizatasun ahulletik baino gehiago behar izaki, aberetasun natural eder batetik.

Hona hemen ekologista zahar baten esana: "*naturak esana dakit, nik, edozein egunetan jaiola eta edozein egunetan hila izan nintzela; erreka garbiak bezain naturalak direla niretzako erreka zikinak; kloakatako arratoiak bezain naturalak, harkaitz gainetako arranoak; platerka babarrunean inoizka ateratzen zitzaizkidan har zuri egosiak bezain zoragarriak, udaberriko pinpilinpauxa beltzak; azken otso tiroz akatua bezain ederra, arratsaldero hegan ikusten nuen mirua; ordenadorez idatzitako amodio gutuna bezain naturala usalumaz idatzitako testamentu zaharra; ehiza bezain naturala ehiztaria; epata bezain naturala misila*".

(*) *Idazlea*

Monte
taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

Iosu
argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.
Erreportaiak.
Ikastaroak


Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

Azokako saltzaileak greban

Postuen tasakin eta saltoki urritzearen kontra

Gaur azoka plaza ez da ohizkoa izan, eta erostera etorri den herritarrak postuak itxita aurkitu ditu, saltzaileek plazaren etorkizunaz kexu direla eta burutu dituzten ekintzengatik.. Kalez kalezko saltzaileek burututako protestari base-ritarrek eta merkadiloko arropa saltzaileek ere erantzun diote, eta udal-txean euren protesta aurkeztu dute Alkateari eramandako agiri baten bidez.

Azokako saltzaileak ez datoz bat udalak merkatuaren etorkizunerako egin duen postu banaketarekin, eta postu horiei ezarri nahi zaizkien tasak ere gehiegizkotzat jotzen dituzte. Egindako proiektuak kanpoan utziko litzuke azokara saltzera urtetan etortzen diren hainbat merkatari, postu kopuruaren gutxitzearekin, eta postua alokatzearen prezioa %50ean gehitzen denez, elikagaien salneurrian ere garestitzea era-



Postu kopurua gutxitu egingo da proiektuarekin
gingo liekeela eman dute aditzera saltzaileen ordezkariak.

Tasak ordaintzea "*Udalarentzat lanean jardutea*" dela erizten diote saltzaileek, zergak ordainduko badituzte salneurrietan ere igoera izango dela jakin eraziz, bestela irabazpiderik ez dagoela eta. Udalak egin duen proiektuan jasotzen den klausula baten arabera, gainera, azokako postuen %50 bete gabe gertazera, azoka itxi egingo litzateke, eta "*horixe nahi ote duten susmoa daukagu*", diote saltzaileek. Prezioak igotzearen zergatiari buruz, euren ustez, "*ez da diru kontuegatik, bestela ez da ulertzen baserritarrek eta gainerako postuek tasa ezberdinak ordaintzea*".

Kaleratu duten protestan, herrian hainbat urtetan bizirik iraun duen plazari eusteko deia egiten zaie erosleei, euren eskubideak defendatzen laguntzeko eskatuaz.

Usteak uste

Bazterrak astindu ditu berriro Bernardo Atxagak Donostian egindako adierazpenekin. Gauza asko esan zuen, besteak beste euskara aurrera ateratzeko orduan pragmatismoa aldarrikatu, muturreko jarrerak alde batera utziz. Funtsean bat nator Bernardoren hitzekin eta uste dut bide horri ekin zitzaioela aspaldi Arrasaten.

Arrasateko sozialistek ez dituzte gauzak horrela ikusten, eta arartekoaren dimisioa eskatu dute. Eskubide osoa dute Juanito S. Martinen dimisioa eskatzeko, eta behin horretan jarritz gero baita Urralburu sozialistarena ere. Nafarroan euskal irratiekin egin duenagatik. Txarrena, ostera, hauxe da: Katalunian eta Galizian ez bezala, hemengo sozialistek euskararen kontrako bidea hautatu izana. Bide arrisksua da eta inoiz ez die Mondragoeko alkatetza emango.

Mondragoekoak akaso ez, baina Donostia eta Gasteizko buruzagi sozialistak konturatu bide dira horretaz eta, dirudienez herrikoekin kontatu barik, Mondragoeko zenbait jende ezagunari proposamen zehatzak egin dizkiote datorren maiatzean PSOEn zerrendetan parte hartzeko. Badakizue Pilar Bravo, Mohedano, Curiel, Iurrioz, Eguren, J. Juarisi eta Teo Unarerekin zer gertatu den. Ezkerreko partiduetan dabilen edo ibilitako jende ezaguna behar du PSOEk aurpegiz aldatzeko Arrasaten. Hauek, ordea, orango ekipoaren desagertzea eskatu eta agian horregatik maiatzerako ez da ezer mamituko, baina buruzagi sozialistena arnas luzeko proposamena omen.

Joxe Aranzabal



Ez zen postuetan salgairik ikusten

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



LEKIN

Illepaindegi mistoa

Erguin 15 etxebehea,
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Lehenengo egunean liburu gutxi aurkeztu zen azokan

Azkenean liburu azoka

Hogei postu eta poltsikoko liburu gehiago aurten

Urrian izateko zen liburu azoka bertan behera geratu eta gero, aste honetan zehar izango da Arrasaten, Garibai pasealekuan. Aurkezpeneko prentsaurrekoan aditzera eman zenez, orduko hartan, arazo ekonomiko eta teknikoengatik utzi zen Arrasatera etortzea, Jaurlaritzatik daukaten laguntza urriarengatik udal bakoitzari dirulaguntza eskatu beharrean azaldu eta Udalak ezezkua eman zuenean. Orain, berriz, garraiolarien greba zela eta beste hainbat plaza egin barik utzi zituztela eta, Arrasatera etortzea erabaki dute saltzaileek, eta 25 etxe etorri dira 20 standetara.

Berrikuntzen artean, umeentzako liburuak jartzeko Udalak alokatu dituen postu ireki biak aipatu behar. Bestalde, antolatzaileen ordezkariak, Mari Karmen Artolak aditzera eman zuenez, euren aldetik ere, animazio eta kale antzerkia jarriko dute astebururako, kale animazio moduan.

Antolatzaileek, bestalde, gehitu egin nahi izan dute azoka honetan poltsikoko liburuen presentzia. Kontuan hartzeko da, gainera, saltzaileek esan dutenez, Gipuzkoako plazarik onenetakoa dela Arrasatekoa, iaz ere hiru milioi eta erdiko salmentak izan ziren eta.

Argazki Lehiaketa

Santamases ingururako urtero antolatzen den argazki lehiaketa martxan dago dagoeneko. ASA elkarteak eta Santamasak batzordeak honako baldintzok jarri dituzte lehiaketan parte hartu ahal izateko: bakoitzak 3 edo 5 lan aurkeztu beharko ditu, gutxienez 18x24 eta gehienez 30x40ko formatoan aurkeztuko dira, beti ere Santamasak gaitzat hartuta.

Emango diren ohizko sariez gain, argazki bakoitzarengatik 300 pta. ordainduko dizkiote antolatzaileek, eta lehen aldiz, sari berezia izango da Olenzero edo Txoronpioren argazkirik onenarentzat. Lanak aurkezteko epea urtarriaren 21ean amaituko da, eta *Ikatz*, *Epelde*, *Laso*, *Imagen* eta *Iosu* argazki dendetan utziko dira. Aurkeztutako lanekin erakusketa jarriko da Monterron jauregian.

JAIOTZAK

Noval Amador, *Yanire*, Azaroaren 3an
Bereziar Arabaola, *Nerea*, 10ean
Cordero Perez, *Asier*, 12an
Garcia Delgado, *Deiane*, 12an
Montejo Billar, *Oiher*, 12an
Gonzalez Puente, *Ekhi*, 13an
Meabe Dominguez, *Tania*, 17an
Uribe-Etxebarria del Pozo, *Ioritz*, 17an
Errasti Diaz de Gereñu, *Gadea*, 18an

Ezkontzak

Luis Gil & Inez M^a Lopez, Urriaren 27an.
Elizaz.
Jose Ignacio Garai & M^a Koro Markaide,
Azaroaren 17an. Elizaz.



Nutrisan-Arrasate Zentru Medikua

- Nutrizio eta dietetikako espezialitatea.
- Mesoterapia estetikoaren tratamendua.
- Kirurgia estetiko eta plastikoa.
- Elektroeskultura-gimnasia pasiboko mahaia.
- RIA laborategia: analisi klinikoak eta alergiak, Lagun Aro eta beste batzuk.

Ordutegia: goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara
(aurrez ordua eskatu).

Kale-Aldea 11 etxabehea, Tfnoa: 79 65 78 ARRASATE



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

1990



SASKI NASKI

Lehiaketa


OKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.
Banatzaile ofiziala

Jose Aranzabal


TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK



ASTE HONETAKO IRABAZLEAK

- ▲ J. M. CUADRADO
- ▲ ZURIÑE V. DE MENDIZABAL
- ▲ SAIOA IRASTORZA

J. URIARTE



NOIZ OSPATZEN DIRA ARRASATEN SANTAMASAK?

ASTE HONETAKO GALDERA

SASKI NASKI ZOZKETAKO opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

ERANTZUNA:

Izena: Helbidea: Tfnoa:


Arrasateko hainbat erakunderen agiria euskararen aldekoa

Aspaldi honetan urtetik urtera naba-
Ariago da euskararen presentzia gure herriko bizitza publikoan -kalean zein erakunde publiko edo pribatuetan, kultur elkarte zein enpresa eta ikastetxeetan- eta gero eta pisu handiagoa du errealitate sozial horrek gure herriko elkarbizitzan. Bai eta Udaletxean bertan ere. Eta hala behar du. Eta horrek ez du inor zertan mindu, poztu baizik. Izan ere, errealitate hori erabat errespetuosoa bait da euskaraz ez dakitenekin eta beraien hizkuntz eskubide guztiekin. Euskararen normalizazio sozialerako ahalegin honek euskara defenditu baino ez du egiten, inoren kontra joan gabe.

Honen froga argia da aurtengo martxoaren 28an aurkeztutako Euskararen Erabilera areagotzeko Hitzarmenaren inguruan 40 Entitatek beraien adostasuna eta konpromezua adierazi zutela eta harrez gero 20tik gora direla bertan parte hartzea eskatu dutenak.

Herriaren ekimen goraipagarri guzti hauen bultzatzaile izan da Arrasateko Udala herritarren hizkuntz eskabide eta proiektuak bere eginez.

Joan den asteetan, ordea, hainbat komunikabideetan Arrasateko Udalaren izena agertu eta bere hizkuntz jokaera diskriminatzaile dela salatu da. Ez dugu uste salaketa hauek modu eta garai



AEDk herriko 50 erakunderen laguntza jaso zuen

egokienean, ezta ere, Arrasateko Udaleko eguneroko erabilpen linguistikoan oinarriturik egin direnik.

Horregatik, hau izenpetzen dugun entitateok, geure hizkuntzaren berreskuratze, modernizazio eta zabalkuntzaren prozesuan protagonista izateko eta esku hartzeko gogo biziz, Euskal Herriaren aurrerapena eta euskara batera doazela konbentziturik, zera adierazi nahi dugu:

a) Ados gaude Arrasateko Udalaren hizkuntz politikarekin, beronen ardatz nagusiekin eta aplikazioarekin. Eta uste osoa dugu Udalak finkatutako hizkuntz politika eta izandako hizkuntz jokaera legezkoak direla. Izan ere, Arartekoak, hala aitortu bait du.

b) Ez dugu uste gure Udalaren hizkuntz jokaera diskriminatzailea denik. Alderantziz baizik. Izan ere, guk guztiok Arrasateko Udalarekin izan ohi ditugun harremanetan sekula ez dugu hizkuntz diskriminaziorik jasan.

c) Arrasateko Udalak oso paper garrantzitsua jokatu du gure Herriaren hizkuntz normalizaziorako prozesuan, hala agintzen bait dio Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Oinarrizko Legeak eta hartara bultzatzen du, bera, herriaren aurrean euskararen erabilpena indartzeko, herriko beste 40 entitatekin batera sinatu zuen Hitzarmenak. Alabaina, Udalaren jokaera jator eta ezinbesteko protagonismo horiek segida behar dute, gure Herriaren nahi garrantzitsuenetariko bat euskararen erabilera eta presentzia areagotzea da eta. Hortaz, bada, egindakoari ongi baderitxoguz ere, Arrasateko Udalak bere esfortzua areagotu beharko lukeela uste dugu, bai baliabideei dagokionez, bai euskararen erabilpenari dagokionean.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak


ARETXABALETAK

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

 ECUADOR

Kontzezino 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE


L ARRINGAN

auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



San Viator ikastolako 3. mailako ikasleak etorri zitzaizkigun lehengo astean, Arrasate Press eta ATB ikustera. Hogeitamar lagun inguru etorri ziren, kazetaritza interesatzen zitzaiea zirudien, eta ez zaie karrera aukeratzeko ere denbora gehiegi geratzen...



Anbulategira medikuarentzat eguna eta ordua hartzeko deitzen dugunean erabiltzen ditugun telefono zenbakiak aldatu egingo dira laster batean. Medikuntza orokorrerako txanda eskatzeko bi zenbaki hauetara dei egin ahal izango da laster: **77 03 46** edo **77 07 21**. Espezialistarentzat, berriz, honako zenbakiok erabil ditzakezu: **77 12 64** nahiz **77 05 78**.


Iritsi da inausketa, eta **Portaloiko arbolapeak** kerizpe barik geratu dira neguko eguzki ahularentzat. Platano arbolei urtero etortzen zaie adarrak moztea, eta komeni den moduan haz daitezten egiten da podaketa. Herri barruko zuhaitzek, espaloi zuloko lur apurra bakarrik bizi izateko, nahi duten aldera hazteko ere askatasunik ez!

Pentsa dezakezun jostailu erakusketa handiena daukagu zure zain.

Jostailu merkeenak hemen aurkituko dituzu

Eco Gasteiz -en

Cercas bajas 34, GASTEIZ



SAMEGO GARBIKETAK


Alfonso X. Jakintsua 5,
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE

ANAI JATETXEA



BEREZITASUNAK
• Bixugua arranbarrilan
• Legatza
• Txuletak
• Legatza-kokotak

Nardeaga 32,
Tfnoa: 945 - 44 51 01 ARAMAIO (Araba)



Izen
PROPIOAK

● **PEDRO ARANEGI LARRAÑAGA**, 60, eibartarra, Arrasateko apaiz eta San Frantzisko Xabier Ikastolan irakasle izana, erretiratu eta Salamancara joan da ikasketak osatzeko asmoz. Azken urteetan, 15 urte egin ditu ikastolan, eta aurretik Mendiolan eta Eskola Politeknikoan ere ibilia da.

● **ARANTXA JUARISTI**, 39, arrasatearrak, pintura erakusketari jarri du Arrasateko Monterron jauregian. Pintura ikastaro batzuk eginak baditu ere, autodidaktatzat jotzen du bere burua. Arantxak Lan Kide Aurreziaren bulego zentraletan lan egiten du Arrasaten.

● **PEDRO ANASAGASTI**, 70, Oñatin urte askoan bizi izandako bermiotarra, Boliviako hizkuntz Akademiako kide egin berri dute. Pedro frantziskotarra da 1938tik. Argitalpen aldetik, 18 liburu argitaratuak zituen Boliviara joan aurretik, eta artikulu pila baten egilea da.

Argazkikoak **Saski-naski** lehiaketako lehen sarituak dira. **Antxokak** ez zuen saria jasotzera joaterik izan, eta bere arreba **Anuska** ageri da argazkian. Beste biak, **Iraitz Urrutia** eta **Shais R. Mehasi** dira, **Aranzabal**eneko **Mariatxenekin**.



Epelde

Luis Murillas eta Conchi Larrauri

Arantzazuko baselizan ezkondu ziren uztailaren 14ean. Ezkon ondorengo bidaia Italiara egin zuten.

Zorionak! ▶

Adi!

INGELESA

Edozein maila

ORDUA: Goizeko 10ak eta 12ak artean
Arratsaldeko 2ak eta 4ak artean.

Aproposa: etxeakoandrentzat, langabetuentzat, ikasleentzat, dendarientzat eta ordu horietan libre dauden guztientzat

PROMOZIOZKO PREZIOAK

Araba Etorbidea 4,
Tfnoa: 79 01 32
ARRASATE



ETXE-AUNDI
Dastape-menua
azaroaren 30erako

- Modenako ozpinetan eskabetzaturiko eperentsalada.
- Itsasapoa basoko fruituekin.
- Idi-solomotxoaren txitxiburduntzia Biarnosaltsan.
- Arrozesnezko budina kanela-kremaren gainean.

3.500 bez barne
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Ezagutzen ez ditugun futbolaria

Mondra eta UDAko mutilez gain, badira talde bietan futboleant egiten duten neskek ere

Nesken futbolariek beteak ditu hamar urte, baina oraindik ez da gauza normalizatzen. Estatu mailan eta hemengo ligetan ezagunak diren hiruzpataldeez gain, ezer gutxi hitz egiten da nesken futbolariaz.

Arrasaten ere badago, neskek osatutako futbol talde bat, eta taldeko neskek esaten dutenez "herriko jende askok ez daki Arrasaten neskek ere egiten dugula futboleant". Arrasateko futbol taldeko neskek orain lau urte hasi ziren futboleant egiten, eta hurrengo urteko ligan eman zioten hasiera kirol horretako esperientziari. Orduetik, asteen bitan biltzen dira kiroldegian, hogeitau neska inguru, Joxe Vazquez-en ardurapean, eta bi orduko prestatuntzari ekiten.

Hasieran laguntzak gutxi baziren ere, gerora Mondraren barruan sartu eta aurrekontuaz eta marka babeslearekin ari dira partiduetan, eta laguntzaren aldetik, "orain ezin gara kezatu".

Neska izatearen oztopoak

Taldeko neska guztiak zaletasun hutsez hasi ziren futboleant, eta orduan bezala orain ere, badakite mutilek kirol honetan daukaten abantaila gaituzten zaila izango zela. "Mutilek indar handiagoa daukate, teknika gehiago, eta urtetako esperientziak eragin du hori batez ere, gizakumeak eta emakumeak berez dituen ezaugarri fisikoez gain". Añorgak, Oihartzunek eta ligan aurre samarrean dauden beste talde batzuk, gaituztuta dute, neurri batean, arazo hori, "urteen puruz eta saiatzegatik lortutako maila eta ospea da".

Ez da dena, ordea, bal-



Igandeko derby-an hirunako berdinketa izan zen

tilari panpina ematen zaion moduan, mutikoari baloia eman izan zaio beti eta".

Entrenamenduetan ere zailtasun gehiago daukate, asteroko bi saioetara joateko "konfliktuagoak gara, saltza gehiagotan egoten gara sartuta". Ez joate horrek ba omen du gainera mutilekin baino kontrol handiagorik Mondrako arduradunen al-

Hobbya baina ...

Hala ere, neska hauek ez dabilta futboleant goi mailarik harrapatu nahian. Hobby bezala daukate, eta kirol apur bat egitearren ari dira gehienak honetan. "Nesken futbola ere potentziatu nahi genuke, gure aldetik profesional izatera iristerik espero izan gabe. Hori bakoitzak ikusten du, baina talde profesionala sortzea oso zaila da. Diru kontua da dena". Ikastolatan ere neskatilen taldeak sortzea gustatuko litzaieke, herrian mugimendu handiagoa sor dadin. "Beste herri batzuetan futbitoan edo hondartzan egiten dute neskek futboleant. Gurean, berriz, ez dago halakorik. Pentsa, Zaldibarko futbito txapelketan ere ez dago nes-

Neskei oztopoak jarri beharrean, erraztasunak eman behar zaizkie futbolarako

dintza fisiko eta saiatzeko kon-tua. Kulturak eta txikitatik ikasi dugunak badu zer esanik guzti honetan, "neska-

detik: "mutilek ere entrena-menduetara huts egiten dute, baina gu joaten ez bagara esames gehiago sortzen da".



Ibarrako anexoan jolasten dute beti neskek

karik, eta hori gure errua da neurri handi batean".

Zaletasun hori aprobe-txatuz, indartu egin beharko litzateke kirol hori, "neskei kasu gehiago egin, oztopoak jarri beharrean, erraztasunak eman, eta eskubaloian gertatu den bezala, normal-

eta baldintzetan ez dute Arrasateko neska futbolariak aurrerapiderik ikusten. "Entrenatzaileak ere esaten digu ezin digula gehiago irakatsi, eta zaila da maila bat gorago igotzea; klubak ere planteatu behar luke hori".

Aretxabaletan

Aretxabaletan ere badago neska futbolzalerik, baina taldea berriagoa da. Aurtengo denboraldian egin dute estreinua UDAREN barruan eta Xabier eta Xabinen esanetara betetzen dituzte entrenamenduak; oraindik antzematen zaie berritasuna eta talde hobeen aurrean aritzearen lotsa, igandean izandako derbiak behintzat hori erakutsi zuen entreatzaile atxabaltarren esanetan.

Partiduetan ikusle gehiago nahi lukete Mondrako neskek

tasunez hitz egin dadila emakumezkoen futbolaz". Nahia nahi, oraingo egoera

Ilusio handiz ari dira neska atxabaltarrak, eta orain arteko partiduetan alerik ere

irabazi ez duten arren, animaziorik ez dute falta. Etxean jokatzeko dituzten partiduetan ikusle pila biltzen zaie, eta baita txalo egin eta eupadak bota ere. Arrasatekoak harrিতa geratu ziren igandeko partiduko giroarekin, "Arrasaten ez da halakorik izango bueltakoan", diote.

Atxabaltarrekin, euren inguruan sortu den giroa eta apostu saltsaren gaitetik, kexuak ere badituzte: "hasien gaudela eta, beste talde guztien beharretara moldatu behar izaten dugu ordu-tegietan eta entrenamenduetan. Belarretan ez dugu inoiz ere jolastu, eta bidaietarako nahiz arropatan, erabat pobre gauden". Nesken kontu hau aldi baterako dela dirudi, "ia aspertzen diren" pentsatuko balute bezala.

Ikusleen jarrera

Ikustera doan jendearen mentalitatea aldatuaz doa, zorionez, "eta orain ez dira nesken izterrak ikustera joaten". Hala ere, joaten den jendea betikoa da, neurri handi batean "asko dagoenik ere ez dakitelako". Oraindik barreak eta beti entzuten omen dira, eta bereizten ei da tratuan ere jokalaria neska edo mutila den. "atean huts egin edo jokaldi txarren bat eginez gero, barre egiten digute eta hori egin duena mutila bada, zorte txarra izan dela entzungo duzu".

Lehengoa batek bota zigun:

Igandeko partiduan ikusleen artean eritziak eskatzean, neskek futboleko egiteari ondo erizten diotela esan ziguten, "bai, zergatik ez, bada?". Ongi jokatzeko al dute?, galdetu diegu jarraian. "Tira, ... denbora gutxi daramate..." erantzuten dute barretxo batez.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

BRANKA
jatetxea

Eguneko menua eta karta

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduku ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzazoke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzko dotore eta, aidi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-larguzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak estanzazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan egin, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnak zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

Euskara ikasteko erabili beharreko obra

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

LASTER PREZIO IGOERA

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnok: 94-445 46 89 eta 446 69 93



Atetik atera

**Atezainek
sarriegi jaso
zuten baloia
sareetatik**


Taldearen atea zaintzea, zaila izateaz gain, garrantzi handiko lana izaten da futbitoan. Atezaina ondo portatzen bada, baliteke merezi ez den garaipena ere lortzea, edo behintzat gol askorik ez jasotzea. Argazkian dagoena ondo ibili bazen ere, ezin izan zuen eragotzi bere taldeak galtzea. Gutxienez, aparteko trebetasuna erakutsi zuen.



JMA JMA

ZAPATIDOS


Olarte 9, Tfnoa: 79 41 29
ARRASATE



ILLARRAMENDI

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



**LOPEZ
BIZIKLETAK**

Alfonso X Jakintsua 6,
Tfnoa: 79 96 35 ARRASATE

A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Atutemelele	7	7	0	0	45	10	14
Bizkorrak	7	7	0	0	37	15	14
Zortzikin nahiko	7	6	0	1	53	23	12
Golfos Persicos	7	5	2	0	39	13	12
Autovia patutia	7	3	1	3	23	29	7
Potozorri	7	3	1	3	19	25	7
Kakajauri	7	3	1	3	17	27	7
Mutikotes	7	3	0	4	19	17	6
Cañ. Pto. Urraco	7	1	3	3	11	15	5
Bar Alcalde	7	1	1	5	21	44	3
Ugarixoak	7	1	1	5	19	33	3
Bayern de Leniz	7	1	1	5	18	21	3
Ezkinako ontzak	7	1	1	5	17	28	3
Yokese	7	0	2	5	7	24	2
Totala	98	42	14	42	344	344	98

B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Zuloak	7	7	0	0	52	15	14
Laso Arregi	7	6	0	1	41	18	12
Los Heredia	7	5	1	1	53	16	11
Arrasate Kirolak	7	5	0	2	37	20	10
Kriskibalda	7	4	1	2	28	21	9
Fut. Club Lobo's	7	4	1	2	25	29	9
La ira de Odin	7	3	1	3	35	24	7
Aizpun bila	7	3	0	4	31	29	6
Toki Eder	7	3	0	4	30	47	6
Okendo Kirolak	7	2	1	4	29	35	5
Resakas	7	1	1	4	25	36	3
El Regreso	7	1	1	5	27	39	3
Solano 90	7	1	0	6	25	44	2
Gimnasio Saioa	7	0	0	7	9	58	0
Totala	98	46	6	46	446	446	98

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	7	7	0	0	58	26	14
Alperrak	7	7	0	0	56	16	14
Diego Antonio	7	5	0	2	54	25	10
Pepelus	7	5	0	2	27	25	10
Sannan Hussein	7	4	1	2	24	17	9
Artano	7	3	2	2	38	24	8
Kannabis boys	7	3	1	3	45	29	7
Zelai	7	3	1	3	43	28	7
Bar Kajoi	7	3	1	3	38	23	7
Los motz	7	3	0	4	32	36	6
Steaua del grifo	7	2	2	3	20	37	6
Muru Barren	7	2	0	5	20	35	4
Neptuno	7	1	2	4	18	51	4
Bacilona	7	1	1	5	27	45	3
Danok lagun	7	1	0	6	20	38	2
M.G.M.	7	0	1	6	10	65	1
Totala	112	50	12	50	530	530	112

D taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi ibili	7	7	0	0	63	19	14
Camerun's	7	5	1	1	47	16	11
Artzanko's	7	5	1	1	37	15	11
Potoak	7	5	0	2	42	28	10
Sisepuede	7	5	0	2	29	11	10
Adelaida	7	4	0	3	45	20	8
Gau azkenak	7	4	0	3	26	17	8
Balaika	7	4	0	3	23	29	8
La ban. de Pepe	7	2	2	3	24	33	6
Babarias	7	2	2	3	21	31	6
Avinagraos	7	2	1	4	19	30	5
Gastaos	7	2	0	5	30	50	4
Rayo Vatika-no	7	2	0	5	25	40	4
Inter de alimañas	7	2	0	5	18	44	4
B.B.V.	7	1	1	5	15	49	3
Sukumurus	7	0	0	7	13	45	0
Totala	112	52	8	52	477	477	112



OPTIKA - OFTALMIKA

**ERABILI ETA BOTATZEKO
LENTILAK.**

ESKATU INFORMAZIOA

Kontzezino kalea 6, Tfnoa: 79 25 98

KAJOI

TABERNA

Erdiko kale 22,
ARRASATE



Atsedendiko minutuek badute garrantzirik; lehen zatian gertatutakoa komentatu, bigarren zatirako taktika prestatu, atsedena hartu, edo norberaren jokoa goraiatu, morala jaso. Hala ere, badira batzuk zigarroak erre edo tragutxo bat jotzeko aprobetxatzen dutenak.

E maitzak

A taldea

Cañon Pto. Urraco 1	Golfos Persicos 1
Atutemelele 10	Kakajauri 1
Ezkiñako ontzak 0	Autovia patutia 5
Zortzikin nahiko 8	Bayem de Leniz 3
Bizkorak 6	Ugarboak 4
Yokese 2	Potrozorri 6
Bar Alcalde 1	Mutikotes 7

B taldea

Solana 90 0	Zuloak 12
Lobo's 0	Los Heredia 10
Arrasate Kirolak 12	Gimnasio Saioa 0
Laso Arregi 4	Aizpun Bila 2
Toki Eder 11	Okendo kirolak 7
La ira de Odin 3	Kriskibaldia 3
Resacas 3	El regreso 2

C taldea

Steaua del grifo 3	Alperrak 10
Sannan Hussein 2	Bar Kajoi 4
Diego Antonio 9	M.G.M. 0
Fosforos 4	Muru barren 3
Kannabis boys 18	Neptuno 2
Zelai 4	Bacilona 4
Danok Lagun 3	Los motz 4
Artano 5	Pepelus 2

D taldea

Argi ibili 5	La banda de Pepe 1
Potroak 5	Gastaos 10
Avinagraos 3	Adelaida 2
Sisepuede 8	Babarias 2
Camerun's 3	Rayo Vatica-no 5
Inter de alimafas 3	Balañe 5
Artzanoko's 2	Sukumurus 1
B.B.V. 1	Gau azkenak 7



EGUNEROKO MENUA ETA KARTA

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53
ARRASATE



Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

OPEL 
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

TELLERIA

autoeskola

• Mitarte 18, Tfnoa: 79 53 51 ARETXABALETA

• Juan Carlos Gerra 2, Tfnoa: 79 18 39 ARRASATE

Txutak

GOLEATZAILEAK NAGUSI

Goleadak izan ziren aipagarri joan den aste-buruko ihardunaldian: 10 gol sartu zituzten Atutemelele, Los Heredia, Toki Eder, eta Gastaos taldeek, 12 sartu zituen Zuloak taldeak, eta goleadarik handiena lortu zuen taldea Kannabis Boys izan zen, 18 golekin.

Gol gorabehera hori ez da aipagarri den bakarra, ustegabeko emaitza pare bat ere eman ziren eta, Rayo Vatikanok Camerunsi, ira-

baztea, eta Gastaosek 10 gol sartzea Potroak taldeari. Asteburuko gorabeherekin bukatzeko, D taldeko sailkapenean Adelaidari bi puntu kendu behar zaizkio arbitrazera ez agertzeagatik.

Datorrenari begira, A taldean Atutemelele eta Golfos Persicosek partidu gogorra daukate. Gauza bera gertatzen da B taldean, hirugarren eta laugarren sailkatuek (Los Heredia-Arrasate Kirolak) euron artean jokatzeko bait dute. C taldean ez da aldaketarik izango, lehenak, Fosforosek, azkenarekin, MGMrekin jokatzeko du eta; antzerakoa D taldean: Argi Ibili, lehena, BBV, azken-aurrekoaren aurka.

Beñardo Kortabarría

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Cañon Pto. Urraco	Bar Alcalde
Atutemelele	Golfos Persicos
Ezkifako ontzak	Kakajauri
Zortzikin nahiko	Autovia patutia
Bizkorrak	Bayem de Leniz
Yokese	Ugarixoak
Murikotes	Potrosorri

B taldea


Solana 90	Resacas
Lobo's	Zuloak
Arrasate Kirolak	Los Heredia
Laso Arregi	Gimnasio Saioa
Toki Eder	Aizpun Bila
La ira de Odin	Okendo Kirolak
El Regreso	Kriskibalda

C taldea


Steaua del grifo	Artano
Sannan Hussein	Alperrak
Diego Antonio	Bar Kajoi.
Fosforos	M.G.M.
Kannabis boys	Muru Barren
Zelai	Neptuno
Danok Lagun	Bacilona
Pepelus	Los Motz

D taldea

Argi ibili	B. B.V
Potroak	La Banda de Pepe
Avinagraos	Gastaos
Sisepuede	Adelaida
Camerun's	Babarias
Inter de alimañas	Rayo Vatika-no
Artzanoko's	Balake
Gau azkenak	Sukumurus



Tecno



MUGAPE S

Gainazalen tratamenduak eta estalketak


- Zn, Zn-Ca, Mn fosfatoak.
- Parkerizatuak.
- Anodatzapen elektrolitikoak naturalean eta koloretan

Gaitondo-erdikua pabilioi industrialia z/g,
MALLABIA.

Tfnoa: 943 - 17 48 50, Fax: 174854

Xabier Iribar

Hamabost urte Gipuzkoako urak zaintzen



Xabier Iribar, getariarra, Zarautzen bizi bada ere, Biologi ikasketak egingakoa, "Confederacion Hidrográfica del Norte" delakoan lan egiten du duela hamabost urte. Gipuzkoako ibaietara egiten diren isuriak kontrolatu, uraren kalitatea hobea izan dadin neurriak hartu, eta administrazioaren papereak izango liriteke bere lanaren eginbehar nagusiak.

— Zerk kutsatzen du ibaiak?

— Gipuzkoan, isuri gehienak herrietakoak izaten dira, biztanlego handiko tokia da eta. Lantegiena ere kontuan hartzekoa da, nahiz eta bailara guztietan zinkinkeria berdinak botatzen ez diren. Deba Garaian herri eta lantegietan botatzen diren isuri kopuruak parekoak direla esan daiteke.

Deba ibaiari dagokionez, orainartean inguruko lantegi gehienak metal arlokoak eta textilak izan direla san behar da. Orain ez dira textil arloko gehiegi geldituko, baina bai metal arlokoak eta hauek, sortzen duten arazoa zera izaten da: tresna gehienak burdinezkoak izaten dira. Burdina hori, metalez estaltzeko, bainutan jartzen da, eta

ateratzerakoan uraz garbitu behar izaten da, ur hori gero kutsatua ateratzen delarik.

— Deba ibaiak ematen duen bezain kutsatua dago?

— Beno, kontuan hartu behar da biztanle eta lantegien dentsitateari dagokionez, Europako maila altuean gaudela. Uraren kalitatea txarra bada ere, normala da kutsatua egotea, alde batetik administrazioak ez duelako ahal den guztia egin, eta bestetik jendeak ere ez duelako ezer egin.

Une honetan gauzak bideratzen hasi, epeak jarrita daude hasi den hamarkadarako eta nik uste dut gauzak asko aurreratuko direla.

— Bepiz daiteke ibaiak?

— Bai, depuradorak jarritz

zeresanik horri buruz, oraindik kontzientzia falta izugarria dagoen arren.

Isuriak botatzeari utziz gero, eta errepoplatu ondoren, bi urtetan ibaiak bizitza berreskuratuko luke, amurruin kasuan, behintzat.

— Dirutan zenbat suposatuko luke Deba ibaiak garbitzeak?

— Ezin daiteke esan, baina behar bada adierazgarria izango da 1.000 milioi inguru kostatuko den Azkoitia-Azpeitia depuradoraren berri ematea. Jende kopurua antzerakoa denez, hemen ere kostua antzerakoa litzateke. Gero lantegi bakoitzak bere depuradora jarri beharko luke, edo elkartu eta lantegi batzuen artean bat jarri.

badago borondaterik kutsadurarena konpontzeko?

— Arazoa zelakoa den arazoiz planteatu eta gero, ikusten da borondatea bada-goela, ez denen aldetik, baina bai gehientsuen partetik.

— Berez kalitate onekoa da hemengo ura?

— Leku gehienetan bezala, sortzen den tokian oso garbia da. Sorreran badu berezitasunik ere, esaterako Gatzagako urarena, garai batean gatza lortzeko erabiltzen zena.

Hainbeste jende eta lantegi egonik, Deba Garaiko arazorik handiena ez da uraren kalitatearena izan, ur kopuruarena baizik. Etxeetan edaten den urari buruz, Urkulukoa hain zuzen, esan daiteke kalitate onekoa dela, aurrez depuradora on batetik pasatzen delako.

— Kopurua aipatu duzunez, lehorteak izan du eraginik uraren kalitatean?

— Ura urtegiko edukieratik %20 edo 10era jaisten denean, kalitatea galtzen da, algak gehiegi ugaritzen dira, solidoak agertzen... baina depuradora onaz ez dago arazorik. Urkuluko depuradorak ozonizazioa erabiltzen du, gaur egun munduan dagoen teknologiarik aurreratuenak.

== 66 ==

**Bi urtetan Deba ibaiak
bizitza berreskuratuko luke"**

gero, depurazioa teknika aldetik, oso aurreratuta dago eta. Arazo ekonomikoa da larriena. Depurazioa garestia denez, gaia ez da egin daiteken edo ez, nahi dugun edo ez baizik. Aukera guban dago, eta herriak izango du

Azken bost edo sei urtetan administrazioak laguntzak eman ditu, oso laguntza onak gainera, baina konpetentzia desleiala dela eta, orain kendu edo gutxitu egingo dituzte

— Lantegien aldetik,

New York-etik bueltan

Jende asko eta bero handia Maratoi ikusgarrienean

Jose Luis Arroiabe, Jose Luis Egu-
ren, Arriola, Pablo Balerdi, eta Eukeni
Olabarrietak, aurrez pentsaturik
zeukaten bezala, New York-eko mara-
toia inolako arazo barik burutzea lortu
zuten. Ez zitzaion gauza bera gertatu
Enrike Mazmelari, entrenamenduetan
lesionatu egin zen, eta ondorioz ezin
izan zuen parte hartu.

Jende ugaria eta 25 gradutako hotz-
beroa izan ziren errudun garrantzitsu-
nak arrasatearrek denbora onik egin ez
zezaten 42 kilometroak egin ondoren.
"Enbutu ikaragarria sortzen da irtee-
ran eta oso poliki joan beharra egoten
da".

Denbora onik ez egin arren, mara-
toia jaialdi izugarritzat daukate New
Yorken egon ziren arrasatearrek "Bi
milioi terdi pertsona baino gehiagok
ikusit zuten maratoia. Ibilbide guztian
zehar musika bandak, majorett-ak, gai-
teroak, rock taldeak... ikus zitezkeen.
Jendearen jarrerarena ere aipagarria
da, berdin animatzen bait zuten lehen



Sei arrasatearrek Central Park-en

postuan zihoazen korrikalariak edota
azken postuetan zihoazenak"

New York-eko maratoia nundik
nora mugitzen den jakiteko, ibilbideko
puntu batzuei buruzko aipamenak egin
daitezke: Verrazano zubi handitik ate-

ra, handik Brooklyn-era joan,
Queens-etik igaro, Manhattanera pa-
satu, Bronx-era iritsi eta berriro buel-
tan Manhattan-era, zuzenean Central
Park-en kokatzen den helmugan
bukaera emateko.



Centraljet-ek ezin saskibaloian

Pasa den larunbatean, Musakolako kiroldegia jendez
gainezka ikusteko aukera egon zen, bertan Centraljet
Euskal Air eta Muebles Martin taldeen arteko saskibaloia
partidua jokatzeko bait zen. Arrasatearrek hasiera ona eman
zieten partiduari, baina, poliki poliki, Muebles Martin
taldea nagusitzen joan zen. Bigarren zatiko lehen
minutuak erabakiorrak izan ziren. Centraljet-ek norabidea
galdu zuen, donostiarren taldeak bere joku onena eskaini
zuen bitartean. Azkenean Arrasatek 73 Muebles Martinek
100.

**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

F A N C Y

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

PODIUMA

**JOSE ANDRES
URRUTIA**
Eskubaloia biziz



Jose Andres Urrutia, "Galarra" goitzenaz ezaguna, 19 urterekin hasi zen eskubaloian jolasten Arrasateko taldearekin. Orduetik hona hamar urte pasatu dira eta, beheko taldeetan hasi zen mutil honek, gaur egun bigarren mailako taldean jokatzen du. *"Betidanik gustatu izan zait eskubaloia. Kirol honetan hasi aurretik, rugby-a ere egiten nuen, baina gehiago gustatzen zait eskubaloia"*.

Eraso-jokalaria dugu "Galarra", eta horregatik partiduetan, aurreko taldeak erasotzen duen gehienetan, ordezkoen aulkian egon behar izaten du. *"Egia esan, defentsa lanetan ez naiz oso trebea. Banoa hobetzen, baina oraindik larregi gelditzen zait defentsa ona izateko. Nirea eraso da"*.

"Galarra"k ez du arrazoi faltarik bere burua eraso-jokalaritzat edukitzean, ezkerkada bikainak jaurtitzen ditu eta, atzelariak driblatu ondoren. *"Ustedut dribling-a nire armarik hoberena dela, gero jaurtitzeko, altua naizenez, abantaila izaten dudalarik. Dena den, eskubaloia ez da bakarrik joko eta garrantzi handien duena jokalarien arteko konpenetrazioa izaten da"*. Konpenetrazio hori lortzeko, aurtengo denboraldian arazo handiak izan ditu Arrasateko taldeak, ia jokatzen zuten hiru jokalarik taldea utzi zuten

eta. *"Zailak izan dira aurtengo partiduetak. Hiru jokalaririk onenak aldatzea ez da egun batetik bestera konpontzen, baina hala ere gelditzen garenok ahal dugun guztia egiten dugu. Partidu gehienak ondo bideratu ditugu, azken minutuetan norabidea galtzeko. Nerbio kontua, kontu zaharra alegia"*.

Ahaleginak aipatu ditu "Galarra"k, eta ez dago dudarik bera, daukaten guztia ematen duten jokalaririk horietakoa dela. *"Kantxan sartzen naizenean zeharo eraldatzen naiz, eta behar bada horregatik jokalaririk konfliktiboa bihurtzen naiz. Zer egingo diogu bada... eskubaloia bizi egiten badu. Hala ere asmo txarririk ez dut izaten, joko gogorra da eta horrela jokatzen dut, besterik ez"*.

Eskubaloia gogorra dela dio "Galarra"k baina polita ere bai era berean. *"Ez da jende gehiegi etortzen gure partiduetak ikustera, baina zaletasuna aurrera doala uste dut. Ikusteko ere oso polita da, niri jokatzea gehiago gustatzen bazait ere"*.


Eskubaloian lehen garaipena etxean

Aurtengo denboraldian orain arte eskaini duen joko hoberena erakutsiz, Arrasate Kirolak eskubaloia taldeak, garaipen erraza lortu zuen Bilboko Escolapios taldearen aurkako partiduan, 24 eta 17ko emaitzaz irabazi bait zuen. Garaipen erraza izateaz gain, eskubaloia taldeak arrasatearren aurrean lortzen duten lehena da.

Kostatu zen partiduen lehen gola lortzea, bostgarren minutura arte ez bait zen gauzatuko. Lehengo gol hori sartu ondoren, Arrasateko taldeak ez zuen eragozpenik izan markagailuan alde zabaltzeko.

Bilbotarren jokoa oso itsusia zen eta, behar bada, horregatik arrasatearrak ere asko jaitsi zen, atsedena dirako markagailuan 12 eta 9ko emaitza agertzen zelarik. Bigarren zatian, atsedenean entrenatzailearen aginduak jaso ondoren, etxeko joko asko hobetu eta horregatik entrenatzaileak Kortabarriari, gazte mailako jokalaritari, debutatzeko aukera eman zion.

Joko maila bikaina erakutsi zuen Arrasateko eskubaloia taldeak bigarren zati honetan, eta markagailuan alde nabaria lortu zuen joko bikain horri esker. Laburpen gisa, esan daiteke erraztasunez irabazitako partidu honen ondorioz lortutako puntuak, Arrasateko taldeari sailkapenaren atzekaldeko postuetatik ihes egiteko bidea zabaltu diola. Orain taldea sailkapenaren erdian badago ere, aurreko postuetara begiratzeko garaia izan behar du.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkarriak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Forma fisiko onean gaude? (III)

Aurrekoan proposaturiko testaegin ondoren, zure forma fisikoa eskasa dela ikusiz gero, 1989ko ekainean Arrasate Press-en argitaratutakoa berriro irakurtzera gonbidatzen zaitugu, han agertzen bait ziren forma fisiko txarraren hainbat ezaugarri eta forma fisiko hori hobetzeko egin behar dena. Gaur berriz, beste azalpen batzuk emango dizkizugu, hau da, erregularitasunez -astean hiru aldiz gutxienez eta 40-50 minututako iraupenaz- egindako kirolak zergatik eta zein mekanismori esker babesten duen gorputza gaixotasun kardiobaskularretatik.

Hainbat azterketak erakusten duenez, kirola egiteak

gantzen perfil lipidikoa hobetuz gero, kolesterol totala jaitsi egin daiteke, eta bere baloreetan jarraitzen badu ere, HDL kolesterola -kolesterol ona, ekintza babestailea duena- gehitu egiten da, eta aldearantziz gertatzen da LDL kolesterolarekin -txarrarekin- gutxitu egiten bait da.

Era berean, glukosaren metabolismoa hobetu egiten da ariketa fisikoarekin, insulinarekiko erresistentzia gutxitu egiten bait da. Trigliceridoak (gure gorputzean zehar dabilen beste gantza-mota bat) ere gutxitu egiten dira.

Berdin gertatzen da pisuarekin, ariketa fisikoaren eraginez gantzak galtzerakoan, murriztu egiten bait da.

Tentsio arterialak, berriz, aldaketa nabariak jasaten ditu

eta epe luzera jaitsi egiten da hau ere. Orain dela 3 urte gaztetxoaren artean egindako azterketak erakutsi zuenez, kirola egiten zutenen artean tentsio arterialaren emaitzak txikiagoak izan ziren egiten ez zutenen aldean, eta bihotzaren erantzuna ere hobea zen esfortzua egin ondoren.

Gure herriko helduen artean ezberdintasun hauek nabariak dira ondoko koadroan agertzen denez:

Eta kontuan izan behar dugu kirol egilea pertsona arrunta dela, langilea eta denbora libre pixka bat kirola egiten ematen duena, besterik ez. Baina aldi berean, pertsona hauek jatekoa ere zaintzen dute, oso gutxi erretzen dute edo batera ez, eta edan ere, neurri egokian. Guzti honengatik, kirola egiteak eta forma fisiko onean egoteak babesten egiten gaitu arteriosklerosetik.

	Kirol egileak	K. egiten ez dutenak
Altuera	173,94	170,80
Pisua	77,92	79,08
Gantzen pisua	17,7	19,24
Tentsio arterial sistolikoa	137	142
Tentsio arterial diastolikoa	82	87
H.D.L. kolesterola	63,68	55,09
L.D.L. kolesterola	179,15	182,34
Trigliceridoak	141,2	172,1

Eukeni eta Arantxa



CALIDO COLOR DE OTOÑO

**Juan Carlos
Irizar
eta
Soraia
Agirregoikoa**

Azaroak 23, ostirala
Gaueko 10.30etan
Sarrera: 500 pta.

Gazte txartelarekin 300 pta.





Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
ARRASATE

CLINICA DENTAL GIPUZKOA HORTZ-KLINIKA

ENDODONTZIA
EZARPENAK
HORTZ ESTETIKA
PROTESI FINKOA
ETA ALDAGARRIA
KIRURGIA
ORTODONTZIA
ODONTOLOGIA OROKORRA

Marisa Porta Peña Dk.a
Gabriela Porta Peña Dk.a
Pablo José Mármol Dk.a
ODONTOLOGOAK

BERGARA ZUMARRAGA
Simon Arrieta Plz. 3, Soraluze 1,
Tfnoa: 76 38 54 Tfnoa: 72 46 47

LASTER
IREKIKO DA
abenduak 3

ARRASATE

Iturriotz 7 bis, behea,




Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur
egun eskura dauzkazun leiho miresga-
rriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.

Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Jose Ignacio Agirre

Goikobalu abesbatzeko lehendakaria

Jose Ignacio Agirrek bere Ford Fiesta orain zazpi urte erosi zuen eta, dioenez, ez omen du inolako arazorik izan. Eta hori, ez duela gehiegi zaintzen, "urtean lau edo bost bider garbitzen dut eta kitto". Erabili ere, ez omen du gehiegi erabiltzen, "55.000 kilometro egin dizkiot bakarrik".

Ez bizkor eta ez poliki ibiltzea gustatzen zaio, "eguraldi onarekin eta egunez ibiltzea nahiago dut". Goikobalu abesbatzeko lehendakariari dagokionez, musika entzunaz gidatzea gustatzen zaio, "klasikoa eta korala".



**LASTER ZA
BALDUKO**

FAST

2000

**Ikasi, lan egin eta jolas egiteko behar
duzun ordenadore hori daukagu
"FAST 2000"n**

Merkatuko markarik onenak

Ferrerias Kalea 50, ARRASATE Tfnoa: 77 14 75

**ORDENADORE BAT
EROSIZ GERO**


**ARGAZKI
KAMARA**

**BIKAINA OPARITUKO
DIZUGU**

(eskaintza honek urte
bukaera arte balioko du)

Tontorretako kondarrak (IV)

Edozein modutan mendia egitera etorri garenez, berriro ere, geure bideari ekin diogu. Gero eta gorago, eta gero eta iugoslaviar gehiago aurkitzen ditugu. Glaziarren azken morrea igaro eta denda jartzeko leku aproposa ikusi dugu. Laku txiki bat ere badago eta ura hartzeko aprobeixatu dugu, kontuan izan behar da eta, 5.000 metrotara ura lortzeko izotza urtu egin behar dela. Glaziarretik behera zazpi iugoslaviar datoz. Denbora poliki poliki aurrerantz doa eta goiz losakuetan sartzea pentsatu dugu. Hotzak ere bere eragina du honetan, jakina. Goi-




zaldeko 6ak aldera, gosalduta eta gailurrerantz. Ibiltzen hasi eta berehala, glaziarrean sartu gara. Gero eta elur gehiago aurkitzen dugu gure bidean, bina egoera onean dagoenez, ez dugu neke han-

dirik sortzen. Horrelako batean, 60 graduko horma txiki batekin egin dugu topo. Pioletak motxiletatik atera eta horma igotzen hasi gara.

Izotza oso gogorra dagoenez, ez dugu zailtasun

handirik izan horma gainditzeko. Gailurra gero eta hurbilago dakusagu eta horrek ere animatu egiten gaitu. Haizeak gero eta gogorrago jotzen du, baina azkenean heldu gara gailurrera. Hotza ikaragarria da eta derrigor atera behar diren argazkiak atera eta maldan behera abiatu gara berehala. Babesa eskaintzen zigun hormara heldu garenean, atsedean apur bat eta indarrak hartzeko zerbait jan eta behera. Dendak jaso eta oso azkar egin dugu beherako ibilaldia. Arratsaldeko 4etarako heldu gara lehen aipatutako lakuetara eta jakina, han zeukan Agustinek janari bero eta gozoa prestatuta.

Hankamotz



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goian Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, O1170 LEGUTIO

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Iosu

argazki denda


Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

ZUBIZARRETA
TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**



J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE


Lua
gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate



77 08 15

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

Aste gazte

Gazteen artean oso zabaldurik dagoen okerra, hau da: amodioa beti zoriontsu izatera bultzatzen duen gauza dela.

(M. Busch)

Bekak

- 91-92 ikasturtean Norvegiar ikerketak burutzeko bekak 20 eta 35 urte bitarteko postgraduatu, eta baita, ingelesa zein eskandinabiar hizkuntza menperatzen duten karrerako azken mailako ikasleentzat. Dirulaguntza: 4.400 norvegiar korona hila-betero eta 1.000 korona instalazio gastuetarako. Epea: 90-12-15.
- 1991.eko udan Osloko Unibertsitatean ikasketak burutzeko bekak. Ingelesa edota eskandinabiar hizkuntza menperatzen duten karrerako azken mailako ikasleak zein goi mailako graduatuen-

tzat. Dirulaguntza: matrikula, lojamendua, mantenua eta bidai laguntza. Epea: 90-12-15.

• Austriako Goi Mailako Zentruetan Mintegi edo Udako Ikastaroak burutzeko bekak (uztaila eta iraila bitartean). Alemaneraz dakiten 20 eta 35 urte bitarteko karrerako azken mailako ikasle zein lizentziatuentzat. Dirulaguntza: 8.300 austriar shilling, matrikula eta bidai laguntza. Epea: 91-1-4.

• Holandako Goi Mailako Zentruetan ikerketa edo ikasketak burutzeko bekak. Ingelesa, alemanera, neerlandera zein frantsez hizkuntza menperatzen duten karrerako azken mailako ikasle zein lizentziatuak. Dirulaguntza: hileko 1.130 florin, matrikula eta bidai laguntza. Epea: 91-1-9.

• Portuges hizkuntza eta kulturari buruz ikerketa lanak burutzeko bekak. Portugesa menperatzen duten lizentziatuentzat. Dirulaguntza: hileko 74.800 ezkuu eta bidai laguntza. Epea: 91-1-16.

• 91 urteko udan alemane-

ra ikastaroak burutzeko bekak (2 hilabeteko iraupena). Alemanera hizkuntzaz gutxienezko ezagupena duten karrerako azken mailako 29 eta 32 urte bitarteko ikasleentzat. Dirulaguntza: 4.350 DM. Epea: 91-1-25.

Lana

• Zarautzko Udal plantilako ondorengo plazak jabetzan betetzeko deialdia (hautaketa libre): zuzenbidean lizentziatutako teknikaria, udaltzaingoko sarjentu buruzagia, administraria, erakusketen arduraduna, euskaltegi-rako administrari laguntzailea eta langilea.

Eskaerak aurkezteko epea: Azaroaren 29ra arte.

Ikastaroak

• Arkeologia Hastapenak Ikastaroa (UED) 1991.eko urtarriletik martxora arte. Larunbatetan, goizeko 10etatik 13etara. Klase teoriko eta txangoak. Matrikula: 12.000 pta. Izena emateko epea:

abenduaren 21era arte.

Lehiaketak

• Bilboko Hiria III Pop-Rock Lehiaketa. "Pop-Rock" edo "Heavy" musika-taldeei zuzendua. Parte hartzeko baldintzak: taldeak jotzen duen musikak eta letrak taldeko norbaitek egindakoak izan behar dute eta LP bat baino gehiago argitaraturik ez izatea. Sariak: diru-sariak eta LP-zenbaiten grabaketak. Izena emateko epea: abenduaren 31era arte.

Erakusketak

*"Gazteaz ari gara" gazte-elkarteen erakusketa. Azaroak 30 eta Abenduak 2a bitartean, Donostiako Udaletxeko sotoan. Nazioarteko elkarteak, ekologistak, astialdikoak, naturalistak, bakezaleak...

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua, 77 00 65

"PAL" burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea 3, Tfnoa: 79 31 99



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerías 23, ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ETXEBIZITZAK

- Arrasaten, erdialdean lau urteko etxebizitza berogailuaz, salgai. Hiru logela, egongela, sukalde amueblatua, bi bainugela, ganbara. Garajea saltzea ere posiblea da. Tfnoa: 79 95 46
- Makatzenan 5. pisu bat salgai daukat, igogailu eta ganbara. Deitu 79 72 39 telefonora.
- Etxebizitza salgai Erguin kalean, oso salneurri interesgarrian. 79 87 41 telefonon nahi adina informazio.
- Maitena kalean etxebizitza saltzen dut. Interesatuak dei egin 79 33 38 telefono zenbakira.
- Seme-alabarik gabeko bikoteak etxebizitza alokatu nahi luke. Dei egin 79 88 20 telefonora
- Etxebizitza konpartitu baten gela alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 66 45. Jabi.
- Etxebizitza salgai, Loramendi, 06-14. A . amueblatua. Tfnoa.: 79 98 03 Arratsaldez edo gauez.
- Etxebizitza alokatzen da Gasteizko Adriano VI kalean. Interesatuak dei 79 31 77 tfnora.
- Merkatala lokala salgai 119 metro karratu, 60.000 pta/metro koadroko. Helbidea JL Iñarra pasealekua, 26. Tfnoak.: 79 99 81 / 79 92 43.

LANA

- IEE bigarren mailako Fisika eta Matematika ikasketak ematen dira (Injinerutzako hirugarren mailako ikaslea). Tfnoa: 88 25 71 (Ostiral gaua eta igandea bitartean)
- OHoko klase partikularrak emateko prest. Euskaraz nahiz erdaraz. Dei 79 50 99 Tfnoa. Esther.

- Neska euskaldunak lana egingo luke arratsaldez. Bergara edo Arrasaten. Tfnoa: 76 52 39 gaueko 9etatik aurrera.
- Pertsona behar da San Viator ikastolan ikasleen begirale eta aktibitateak egiteko, eguerdiko 1-3.30etara.. Euskalduna eta aisialdian esperientziak. Epea azaroaren 2ra arte. Eskariak San Viator Ikastetxean Arrasate Pasealekua 10, Tfnoa: 79 04 11.
- REM I, II eta OHO.ko klaseak ematen ditut larunbat goizetan, bai euskaraz, bai erdaraz. Tfnoa.: 79 99 82. Iñaki
- Andra euskalduna etxeko lanak edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 07 73
- Neska behar da umeak zaintzeko. Tfnoa.: 79 38 55 . 8etatik aurrera.
- OHoko klase partikularrak ematen dira bai euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19 Itziar.
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.
- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest . Deitu 79 78 65 tfnora
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei egin 79 29 05 edo 79 77 57 tfnora.
- Fisika ikasketak ematen dira. Goizean eta arratsaldean. Ffnoa: 77 13 95

SALEROSKETAK

- «2.600» bideo joko kotsola salgai egoera onean. 5.000 pta. Tfnoa.: 78 17 88. 9etatik aurrera.
- Ileapaindegirako tresnak salgai daude. Egoera onean. Tfnoa.: 76 61 66
- «Montaña del Pirineo» txakurkumeak salgai. Pedigree gabe, baina jator jatorrak. Tfnoa.: 79 97 60

- Etxebizitza baten ohea alokatzen da. Tfnoa.: 79 07 73
- Pedigree duen Collil txakurra behar da kumeak egiteko. Tfnoa.: 79 64 50. 9etatik aurrera.
- Pastor aleman txakur kumeak salgai. Tfnoa: 79 15 21. Jose Luis Berezibar.
- Musika ekipoa salgai, prezio onean. Tfnoa.: 79 45 39 Joxe Felix.
- MSX ordenagailurako jokua salgai. Zinta bakarra. Erbe software. Taipan jokoa. Deitu 79 15 96 telefonora.
- FAGGIN errepedeko bizikleta urdina salgai. Neurria 53. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepedeko bizikleta urdina salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepedeko bizikleta beltza salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepedeko bizikleta gorria/txuria/

DENETARIK

- Eraikitzeo lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnora
- Datorren ikasturtean Madrilera joan beharra daukat ikastera. Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tfnoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- Astelehen goizean Donostiara joateko, bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke . Dei 79 13 83 Arrasate.
- New York-etik gure Arrasateko lagunari musu handi bat. Sharryn, Geoff eta Kikin-en partez.
- Bi gazte larunbat goizetan buzoneo edo halakoren bat egiteko prest. Harremanetarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel.



ESKERRONA

Arrasaten oraintsu hil den
JOSE LUIS ABASOLO ARREGIren
famihiak eskerronik
beroena eman nahi dizue doluminak bidali
edota haren aldeko hiletan parte hartu
duzuen guztioi.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Sebastian Lasa
Mendi kafetegikoa



- **Barra kanpoan ala barruan?**
Kanpotik hobeto ibiltzen da, baina barrua asko gustatzen zait.
- **Tabernetan, makinarik bai ala ez?**
Ez, bizimodurako falta egingo lukeen diru asko kentzen dutelako.
- **Jateko, pintxo hotzak ala beroak?**
Beroak.
- **Eta prestatzeko, hotzak ala beroak?**
Beroak ere, lan gutxiago ematen dute.
- **Bazkalostea ala afalostea?** Lanerako bazkalostea, eta egoteko afalostea.
- **Tabernarako, musika ala telebista?** Musika
- **Kafea, espresa ala lapikokoa?** Espresa. Lapikokoa baserrian eta gustora hartzen da, baina gaur egunean dauden kafeterekin espresa naturalagoa ateratzen da.
- **Kartetan ala dadotan?** Bat ere ez. Gabonetan jokatzeko dut zertxobait, baina ordulaurdenean aspertzen naiz.
- **Ardo beltza ala gorria?** Beltza, eta Errioxakoa bada, hobeto.
- **Toki itxiak ala zabalak?** Oso zabalak, klaustrofobia antzerakoa ematen didate toki itxiek. Tabernan ere aire girotua gustatzen zait, korrontea eragiteko.
- **Umeak ala animaliak?** Bietatik, umeak urtebetetik aurrerakoak gustatzen zaizkit, eta animaliak ere asko.
- **Entzuteko, bertsolariak ala trikitilariak?** Biak, eta bertsolarietan Azpeitiko eskolakoak.
- **Azpeitia ala Arrasate?** Beno, hemen 28 urte daramadanez, Arrasate.
- **Pajarita ala korbata?** Lepoa libre; horiek estutu egiten dute.
- **Gatzatua ala Yogurt-a?** Esnekietan, gaztaia bakarrik.
- **Gaztaina erreak ala egosiak?** Arbolatik jausitakoak goxoak gelditzen dira egosiak, baina danbolinean erretakoak nahiago ditut.
- **Txanpaina baso altuan ala zabalean?** Zabalean. Baso altua tragoak jotzeko ederra da, baina txanpainarentzat ez.

Zelebrequerixak

A badiak bero-bero ziharduan domeka hartako ebanjelixua esplikatzen.

Jesukriston milagro ikaragarri haura goratu nahitta, berbak arrapalaran urtezen jakozen. Sermoian momenturik onenera ailegau zanian zorioneko nahaste-borraste haura sortu zan haren mingaifian:

“...bai kristau maiteok, Jesukristo gure jaunak bost mila ogi eta bi mila arrainekin bost gizoni eta haien andre eta umei eman zien jaten eta hondarrekin hamabi saski bete zituen”.

Jentia belaxe konturatu zan aldrebes esan ebana. Fernando behan zeuan barrez-barrez, ixilik egon ezinda. Halako baten, esan eban danek entzuteko moduan.

— Hori neuk pe egingo neuke, apaiz jauna.

Jentia barrezka hasi zan eta abadiak pe igarri zotsan zertan trabau zan. Lotsalotsa einda jatsi bihar izan eban pulpittotik.

Hurrengo urtian ebanjelixo haura tokatzen zan domekan han zeuan Fernando lenengo ilarako bankuetan barre puxkat eitteko esperantziakin. Abadia be akordau zan han zeuana eta berari begira jarritta hola hasi zan berbak ondo borbilduaz;

“Bai kristau maiteok! Jesukristo gure jaunak bost ogi eta bi arrainekin bost mila gizon eta beren andre eta umei eman zien jaten, eta oraindik ere, hondarrekin hamabi saski bete zituen”.

Hau haundi usainian esanda, arnasaldi luze bat hartu eban abadiak.

Fernandok, etenaldi haizetsu haura berai zuzenduta zeuala ikusitta, hola kontestau zotsan abadiak:


— Hori neuk pe egingo neuke, apaiz jauna.

— Zela?

— Iezko sobrantiekin.

Juan Martin Elexpuru

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE



Biteri lorategian 1934

Zerkaosteta, Biteri eta Garibai etorbideen artean INEM, Lasagabaster, GK, BBV, etxe mordo eta egunkari-kioskoa daude. Beste garai batean, ostera, Biteri lorategia zegoen hor, era guztietako arbola sendo eta ederrekin.

Gazteen topaleku, bertako grizpea egokia omen zen pik-nik eta antzerako jaiak egiteko, aizkoren altzairuak zuhaitzak moztu eta porlanak belarra ito zuen arte. Baina horiek oraingo kontuak dira.

1934eko udaparteko igandea zen argazki hau atera zenean. Garbi-garbi agertzen zaigu gazte koadrila. Zutik, ezkerretik hasita, *Angel Uribetxebarria "Tati"*, *Joxe Amozarrain*, *Sabin*

Arrieta, *German Sagasta "Mane"*, *Luxio Berezibar* eta *Santos Sologaiztoa*.

Belauniko ezkerretik begiratuta, *Joseba San Pedro*, *Pako Mondragon "Marruko"* eta *Benito Etxebarria*.

Bi urte beranduago gerra erori zitzaizen gainera.




ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

LA MERCED IKASTETXEA



BERTSOA:

Arrasatek badauka
 bere aldiakaria
 ta promozionatzen du
 gure gasteria
 guk eskertzen diegu
 utzaitako orria.
 Guretzako idaztea
 bait da poezaria

AXOLA KLIMA

- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- HOTZ INDUSTRIALA
- BERO INDUSTRIALA
- MANTENUA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45- 46



E

zaren eza,
negatibitatearen negatibitatea,
ukapenaren ukapena,
zikintzearen zikintzea
(zaramaren sakabanatze kiratsua),
trakestasunaren astintze traketsa,
itsusiaren aurkako garrasi mugagabea,
haserratuekin haserratzea
(eta hasarrearen askatze indartsu odolgaitza),
zentzugabetasunaren erotzea
(buruaren gorputz-astindura, zentzugabeko leher eztanda)
maite dut gauza guztien gainetik.

Zergatiak
ez daude
paperezko itsaso infinituetan
patxadan flotatzen duten
baitzetan
(bai...bai...bai...).

Juan Luis Zabala



**ASEGURO
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

✓ **TWUIN PEAKS.** Aspaldi ez nuen aurkitu telebista serie bat hain interesgarri eta erakargarri. Hasteko, gauza asko zituen alde: David Lynch zuzendariak egina zen (gogoratzen duzue *Blue Velvet* zoragarria?), Estatu Batuetan sekulako arrakasta izanda eta bi astetan zehar banatutako bi egunetan emango zen, modu horretan egun gehiegi eskatu barik aparailuen aurrean.

Tele 5 katea ari da ematen *Twin Peaks*. Joan den astean ostegun eta ostiralean, eta beste horrenbeste aste honetan. Kapitulu bakoitzak bi ordu irauten du.

Twin Peaks Estatu Batuetako iparmendebalean, Kanadatik zortzi kilometrora, dagoen herri idilikoa da. Bapatean neska gazte bat hilda agertzen da eta beste bat bortxatuta. FBI agentziak detektibe bat bidaltzen du eta, ikerketek aurrera egin ahala, herriaren itxura idilikoaren azpian ustelkeria ugari dagoela aurkitzen du poliziak.

Tramak berehala harrapatzen zaitu, aktoreak ezin hobeak, argazki zoragarriak eta zer esanik ez musika. Eta denen gainetik David Lynch-en eskua eta zinea egiteko maisutasuna. Telebista bere mailarik gorenean.

Nik joan den asteko kapitulu biak baino ez ditut ikusi, baina ez ditut galduko ostegun honetako kapituluak, ez horixe.

✓ **HORTIK ATERA KONTUAK.** Larunbat goizean atsegin handiz entzun nuen Joseba Agirretxeak (ETBn *Kalegira* lehiaketa saioaren aurkezle ondarrutarra) Mikel Azurmendi irakasle eta idazleari egindako elkarrizketa.

Luze eta zabal ari izan zen Azurmendi bere bizitzari buruz berbetan: apaizgaitegiz, ETA, exilioa, Paris, buelta etxera... zintzotasunez hitz egiten zuela iruditu zitzaidan eta zorionez joandako beste garai zurrunbilotsuagoak gogorarazi.

Programaren beste atal baten A. Muniategi, J.M. Aranalde eta aipatu M. Azurmendi bera egon ziren berbetan. Halako batean *Cristal* telebista-serieaz egin zuten topo eta aspaldiko urteetan gure intelektuaren artean telebistarekiko ondo errotuta dauden aurreritziak azaldu ziren, bata bestearen atzean.

Azkenean, Aranaldek zuzendu zuen apur bat eztabaida, hainbeste jenderi hain atsegin bazaio zerbait edukiko duela esanez. Bingo! Hori da, hain zuzen, gure "intelektual" marfilezko dorreetatik egiten ez dakizuna. Hortik atera kontuak, Euskadi irratian, larunbatero, goizeko 10.00etan.

Joxe Aranzabal

Gusto baduzu

ATE IREKIA

Hamairu kapitulotako programa eskaintzen dio ETBk argazkilaritzaren munduari. Sarrera bat baino ez den arren, argazkilaria ezagunen eritziak jasoko dira bertan, eta aste honetako programan argazki kama-rei buruz arituko dira. Larunbat gaueko 23.40etan.

“EZIN EMAKUMEAK ULERTU”

Emakumeak uletzen ez dituztenak Elvis Presley eta Vincent Price dira. Show ibilkari bateko aktoreak herriz herri doaz, maitasun historiak eta nahaspilak sortuz. Azkenean, heritzak askatuko du korapilo guztia. Igandea 15.15ean.

PILOTA

Kirolzaleek pilotarekin dute aste honetan ere zita, Cubako Mundialak zuzen zuzenean eskainiko ditu ETBk Kirolez Kirol programaren barruan. Hainbat espezialitatean Euskal Herriak duen maila dela eta, Hegoaldea eta Iparraldea elkarren arteko lehian izango dira. Gauere, 22.10etan.

elkarrizketak

elkarrizketak 1-10

1-10

HADE

Bideoak

ELKARRIZKETAK 1-10

Habek euskaraz ikasten ari direnentzat ateratzen dituen bideoak dira, hamar elkarrizketaz osatuak. Andoni Egaña, Martin Ugalde, Pello Zabala, Jose Mari Aranalde eta beste hainbat elkarrizketatzen dituzte kazetari ezagunek.

Ostadar irratia

OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)
4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-li* (Haur kantak)

OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM

PROGRAMAZIOA

26 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua**, era guztietako ohar eta abisurakin.
- 19.30 **Bapirulauke**, ume saioa, La Merced eskolako umeekin.
- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztuta.
- 20.20 **Mondrasport**, Behardo Kortabarriak zuzenduta.
- 20.40 **Saltsa-Maltsan**, Juanita Zabalo sukaldari antzuolarrarekin.
- 20.50 **Hitzaldia**: Koldo Izagirre, Telesforo Monzonen literaturaz mintzatuko da.
- 21.50 **Berriak** (errepikaldia).

27 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.25 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.45 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa-Maltsan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 13.40 **Hitzaldia** (bezperakoa)

28 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztuta.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, mahaingurua, J.M. Velez de Mendizabalek zuzenduta. Gaia: Txirrindua, motor eta autozaleak.
- Berriak** (errepikaldia).

29 OSTEGUNA

- 13.00 **Berriak** (bezperakoa).
- 13.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

30 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak**, Begofa Garaik aurkeztuta.
- 20.20 **Erretratoa**, J.R. Elortzak zuzenduta. Gonbidatua: Patxi Urbarren, hiztegile aramaioarra.
- 20.50 **Musikantoi**.
- Berriak** (errepikaldia).

1 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
- Berriak**



Euskal Idazleen Elkarteak XX. mendeko euskal literaturari buruz antolatutako hitzaldi eta mahainguruen barruan, **Koldo Izagirrek** Telesforo de Monzon literaturgileaz hitz egin zuen. ATBk astelehenean eskainiko dizue, Saltsa-Maltsan saioaren ostean, **Mitxel Kaltzakorta**, Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakasleari esker. Argazkian Monzon, hainbat arrasatearrez inguratuta.

S. Francisco Xabier ikastolako umeek tremendo igaro zuten **Bapirulauke** programaren grabazioan. Bapirulauke sariketak ere izan ditu lehen irabasleak, **Mikel Loitik** Elhuyarren bi bideo eta Elhuyar aldizkariako urtebeteko harpidetza irabazi zuen. **Amaia Loitik** Erein argitaletxeak emandako liburu sorta ederra. **Aitor Elorzak** Elkar argitaletxearen saria eskuratu zuen eta **Ane Aranbarrirentzat** azkenik, Mondragoeko Udalen Hezkuntza sailak erregalatzten dituen joko didaktikoak.



LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate



Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Bizi-bizi eta eraginkor egongo zara datozen egunetan. Eraginkortasun hori besteekin erabiliko duzu zure orainarteko eskarmentuak erakutsi nahi izango diezulako. Benetan maitagarri egongo zara eta ez zaizu laguntzarik faltako.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Betiko ohiturak apurtzeko behar izugarria izango duzu, Leo. Ezezaguna zaizun bizumodu berri bati ekiteko irrikan zaude. Borondatez esku zabala izatea oso ondo dago, baina poltsikoa ondo josita erabiltzeak ez ditu kalterik egingo.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Berba eta berba egiteko irrika larrian egongo zara, goizean goizetik gaueraino. Ideia interesgarri eta zentzudunak izango dituzu, baina kontuan izan bestek ere beren entzia emateko aukera behar dutela izan.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Harremanetarako duzun bertute paregabe hori ikustarazteko moduan izango zara, baina kontuz ibili diozunarekin Uranorekiko duzun posizioak utopiatan murgiltzera bidera bait zaitzake eta gustoko ez zaituen norbaitek hortzak erakustea suerta liteke.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Argi-argi izango duzu intelektua Virgo. Ikasten bazabiltza aprobetxa ezazu orain, ez dagoenerako primeran etorriko bait zaizu. Halere, neurritik pasa gabe ibili, gehiegikeriak umore txarreko egotera eraman bait zaitzake.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Egoera berri horri aurre egin nahian egongo zara, baina pasatako esperientzia etorriko zaizu gogora indar handiagorekin. Halere, garaiz konturatuko zara iragana joan dela eta etorkizunari kementsu eutsi beharko diozula.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Energiaz gainezka egongo zara, Gemini, eta ezin izango dituzu eguneroko eginbeharretan erre; oldarkor egoteko joera izango duzu horregatik. Ariketa fisikoa egizu, energia txarrak kanporatzeko modu aproposa da eta.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Urrutirako bidaia edo aldaketaren bat suerta liteke, Libra. Onargarri izango zaizu hauetako aukeraren bat noizbehinka egunerokotasunetik ateratzea, primeran etortzen zaizulako. Ezazu desaprobetxatu.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lasaitasun osoa sentituko duzu aste honetan. Eginbeharra lasai hartzeko aprobetxa ezazu, egunero ez duzu izaten horrelako aukerarik eta. Maitalerik maitagarriena izango zara amodio kontuetan.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Etxeko arazoak ahaztuko dituzu ohi ez bezala. Uranoren eraginpean zaude eta egoera honek rutina apurtaraziko dizu. Esperientzia berriak izateko irrikan izango zara. Alde bien oreka lortzen saiatu.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Bertute guztiak zeurekin izango dituzu Eskorpio, bai lanean bai etxean paregabea izango zara; maitasunean ere bai. Halere, baliteke beharaldiren bat antzematea; joan mendira, eguzkiak bertute hauek berpiztuko bait dizkizu.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra


Goibel egongo zara aste honetan etxeko giroa ez delako izango zuk nahi bezalako. Tirabira guztiak hartuko dituzu kontuan eta besteen arozoen errudun sentituko. Kaleko bizimoduaren onena aprobetxatu. Urdailak arazoak emango dizkuzu.

BIDEO-EMANALDIA

Jeremiah Johnson

- Tokia: **Monterron Kultur Etxea**
- Eguna: **azaroaren 24**
- Ordua: **arratsaldeko 4.30etan**
- Prezioa: **50 pezeta**
- Sarrerak: **Monterronen**
- Antolatzailea: **Arrasateko Udaleko**

Euskara Batzordea



ARGIA EGUNA 90

A Z A R O A K 2 5

10 urte



Biharko prentsa gaurtik

OPEL CORSA BERRIA

ZEURE ESKU INJINERUTZA ALEMANA



Gasolina edo Diesela, 3, 4 edo 5 atekoa. 23 bertsio ezberdinetan. Corsa City, Swing, Gl, Joy, Joy Sport eta GSi. Zeuk erabaki zein hartuko duzun lagun. PSN-PVP: 1.004.000 pta. tatik*

*Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioa (Penintsula eta Balearetarako) Garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne.



EZAGUTU EZAZU

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Kontzesionari Ofizialak

OPEL 
Hobeak esperientziaz